

Ordizian, **2016ko azaroaren 24a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Iñaki Dubreuil Churruca Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak. Ezin etorria adierazi du.

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta and.

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

- 1.- 2016ko azaroaren 3ko udalbatzarrak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.
- 2.- “ Alkatetzako dekretuen berri ematea.
- 3.- “Sahararen aldeko 13. Euskal karabana” aurrera eramateko diru-laguntza ematea
- 4.- Kooperazio proiektuak garatzeko gobernuz kanpoko erakundeei diru-laguntzak ematea.
- 5.- Genero Indarkeriaren aurkako Eguna.

6.- Euskararen Nazioarteko Eguna, adierazpena.

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

- .- Mugikortasun Mahaia.
- .-Onartutako Enirio-Aralarri buruzko LANDARLAN mozioari buruz galdera adostutako neurri eta proposamenak martxan jarri diren.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 20,05etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2016ko azaroaren 3ko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2016ko azaroaren 3ko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea

Eztabaida

Ezenarrojin

Adierazi du, 10. puntuan, Aralarren kontserbazioaren inguruan LANDARLANek sinatutako Mozioaren puntuan, bere interbentzioan jaso dela "Hasiera batean pistaren exekuzioarekin bat egiten zuten baina bere ustez bazeuden alternatiba hobeak, besteak beste, Zaldibiatik egitea pista, gainera, udalerrri honek baimena eman zuen horretarako. "

Azaldu du berak esan zuela honako hau: hasiera batean pistaren exekuzioarekin bat egiten zutela baina uste duela beste aukera batzuk aztertu behar zituztela, Zaldibiatik pista egiteko aukera besteak beste, eta ez zela aztertu.

Idazkariak akta zuzendu du zehaztutako moduan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako akta bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



2.- Urriko Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Idazkari and

Jakinarazi du zerrendan 996 zenbakiarekin baliogatuta azaltzen den dekretua azkenean erabili egin dela esleitu zitzaion ebazpenerako, eta beraz, zerrendan ez dela baliogabetu gisa jasoko.

Ezenarro jn eta Maiza and.

Ezenarro jaunak eta Maiza andreak dekretuaren eduki zehatzari buruz galdetu dute.

Idazkari and

Idazkari andreak informazioa eman die.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



3.- “Sahararen aldeko 13. Euskal karabana” aurrera eramateko diru-laguntza ematea

Proposamena

SEADekiko Elkartasun Euskal Koordinakundea

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2016 urteko ekitaldiari dagokionez,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

SEADekiko Elkartasun Euskal Koordinakundea, Gobernu Kanpoko Erakundeari, 2.000,00 €ko diru-laguntza ematea ONARTZEA, “Sahararen aldeko 13. Euskal karabana, piztu itxaropena” aurrera eramateko.

Eztabaida

Alkate jna

Diru-laguntzaren xedea azaldu du eta adierazi du ez dela Udala proiektu honetan parte hartzen duen lehenengo aldia.

Diru-laguntzen zenbatekoa 2.000 eurokoa da eta horrekin Udalak proiektuarekiko duen elkartasuna erakutsi nahi da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



4.- Nazioarteko kooperazio proiektuak burutzeko GKE-ei diru-laguntzak.

Proposamena

Kooperaziorako proiektuak garatzeko gobernuz kanpoko erakundeei diru-laguntzak emateko arautzen duen arautegiarekin bat egin da, eta 2016 ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 12 proiektu aurkeztu dira.

Honetarako aurrekontuaren partida **75.000 eurokoa** da.

Proiektuak aztertu ondoren, eta 2016/11/02ko Gizarte Ongizateko delegazioa eta 2016/11/11ko Osoko Bilkurarako gaien batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA:

Ondoren aipatzen diren diru-laguntzak onartzea, honako erakunde eta proiektuei:

-1- MUGEN GAINETIK. Suchitotoko emakumeak indarkeriarik gabeki bizitza eta sexu eta ugalketa eskubieen jarduteari laguntza. El Salvador.

Diru-laguntza: 10.917,35 euro

-2- MANOS UNIDAS. Chrodak (Maroko) eskola-erkidegoko neska eta emakumeen aukera berdintasuna sustatzea hezkuntzan, parte hartzean eta garapenean.

Diru-laguntza: 12.000,00 euro

-3- ASAMBLEA DE COOPERACIÓN POR LA PAZ. El Salvadorreko emakumeek berdintasunean oinarrituriko eta indarkeriarik gabeko bizitza eskuratu ahal izatea sustatu.

Diru-laguntza: 7.656,16 euro

-4- GIPUZKOAKO OSCAR ROMERO SOLIDARITZA BATZORDEA. Tacuba udalerriko landa-eremuko emakumeentzat diru-sarrerak sortzea, ekonomia solidarioko eredu bati jarraituz, El Salvador herrialdean.

Diru-laguntza: 11.866,73 euro

-5- ONG TAUPADAK. Agua potable y saneamiento básico para eliminar la mortandad materno-infantil y preservar la salud de los indígenas chimanes. Bolivia.

Diru-laguntza: 9.500,00 euro

-6- SERSO SAN VIATOR DE EUSKAL HERRIA. Favorecer el acceso a Educación Básica Alternativa de las/los jóvenes desescolarizadas/os de los Distritos de Caraz, Pueblo Libre y Santa Cruz. Perú.

Diru-laguntza: 12.000,00 euro

-7- DERANDEIN FUNDAZIOA. Reducción de la situación de vulnerabilidad de la primera infancia en las comunidades de Small Erus, Ngameriek y Alagama, región Turkana Norte. Kenia.

Diru-laguntza: 7.527,27 euro

Ondoren aipatzen diren erakundeek aurkeztutako eskaerak ukatzea:

-1- ACTIV@S POR UN MUNDO SOLIDARIO AMS-MSH MUNDO SOLIDARIOA HELBURU. Diriamba herriko urritasuna duten gazte eta helduen formazio Sozio laborala. Nicaragua.

Diru-laguntza ukatzearen arrazoia: Proiektu honen puntuazioa ez da nahikoa izan lehiaketan diru-laguntza lortzeko.

-2- DOA. DENOK OSASUNAREN ALDE. Fortalecimiento del sistema de salud del departamento del Beni, en el ámbito asistencial y de formación. Bolivia.

Diru-laguntza ukatzearen arrazoia: Proiektu honen puntuazioa ez da nahikoa izan lehiaketan diru-laguntza lortzeko.

-3- COLABORACION ESFUERZO ACOES-ZARAUZ. Mejora de la calidad de la educación en la colonia Nora de Melgar, en Tegucigalpa, departamento de Francisco Moraza (construcción de aula). Honduras.

Diru-laguntza ukatzearen arrazoia: Proiektu honen puntuazioa ez da nahikoa izan lehiaketan diru-laguntza lortzeko.

-4- CHIAPAS ENEA. Chiapaseko jatorrizko emakumea gaitzeari begirako garapen turistikoa.

Diru-laguntza ukatzearen arrazoia: Epez kanpo egin da eskaera.

-5- NAZIOARTEKO ELKARTASUNA - SOLIDARIDAD INTERNACIONAL. Red local por el acceso a la justicia de mujeres víctimas de violencia machista. San Lucas, Tolimán, Sololá. Guatemala.

Diru-laguntza ukatzearen arrazoia: Epez kanpo egin da eskaera.

Eztabaida

Alkate jna

Diruz lagunduko diren proiektuen berri eman du. Kopurua osotara 75.000 eurokoa da, 7 proiektutan banatzen dira nahiz eta aurkeztutakoak 12 izan.

Bost proiektu baztertu dira gutxienerako puntuazioa ez dutelako gainditu.

Bozketa

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



5.- Genero indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta Erakunde Adierazpena.

Proposamena

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen *emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna*, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu *emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko* oinarriekin, 'Istanbuleko Hitzarmena' delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.

Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.

Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Hona hemen neurri zehatz batzuk:

1. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.
2. Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.
3. Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzeari emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.
4. Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.
5. Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.
6. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.
7. Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.
8. Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskatilen eskubideak.
9. Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizatorako ekintza soil gisa.
10. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. Berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarritz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.
11. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarritz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.
12. Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.
13. Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.

Eztabaida

Alkate jna

Adierazpena onartzeko arrazoia azaldu du.

Osoko bilkurak adierazpena onartzeko proposamena azaltzeaz gain, egun hau dela eta biharko antolatutako ekitaldien berri eman du alkateak eta bertan daudenei ekitaldi horietan parte hartzeko gonbidapena egin die.

Jakinarazi du Berdintasun sailak programa bat egin duela, eta besteak beste gazteen giza-kate bat antolatu dela eta Altamiran hasita Plaza Nagusian amaituko dela.

Adierazpenak jasotako puntuak irakurri ditu osoko bilkurak onartzeko.

Bozketa

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak adierazpena onartutzat jo du.



6.- Euskararen Egunari buruzko Erakunde Adierazpena.

Zer egin dezaket nik euskararen alde?

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2016

Adierazpena

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera.

Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da.

Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker.

Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker.

Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu.

Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukeraberdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak.

Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntzaaniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri

aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu:

“Zer egin dezaket nik euskararen alde?”.

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzeko eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, “Zer egin dezaket nik euskararen alde?” galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.

Bukatzeko Ordiziako Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.

Eztabaida

Alkate jna

Azaldu du adierazpenaren helburua dela euskara eta hizkuntza bizikidetzaren indartzeko konpromisoa hartzea, eta konpromiso hori norberaren neurrian eta norberaren aukeren baitan dagoela.

Hori dela eta, galdera hau egin behar diogu gure buruari: zer egin dezaket nik euskararen alde?

Horrekin batera, herritarrei eta gizarte eragile guztiei galdera hori nork bere buruari egiteko gonbidapena egiten die eta bakoitzak bere erantzuna hausnartzeko; guztion ekarpenak erabilgarriak eta onuragarriak direlako euskara biziberritzeko eta gure bizikidetzaren indartzeko.

Bozketa

Aldekoak: 12 (EAJ/PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak adierazpena onartutzat jo du.



6.- Galde-erreguak

Eguren jaunak, Mugikortasun Mahaiaren inguruan galdera batzuk egin nahi ditu.

Esan du aurtengo otsailean, osoko bilkurak horri buruzko mozio edo proposamen bat onartu zuela eta Alkate jaunari galdetu dio non hartu diren trafikoari eragiten dioten erabakiak, eta ez al diren Mugikortasun Mahaian hartu, Mahai horri dagokionean erabaki horiek hartzea.

Alkate jaunak erantzun dio esanez trafikoa Orokorro kalean soilik aldatu dela.

Eguren jaunak esan dio beste neurri batzuk ere hartu direla, besteak beste, trafikoari eragiten dioten semaforo foto-gorriarena edo ibilgailu radarrena.

Alkate jaunak erantzun dio esanez semaforo foto-gorria eta radarra ipintzea herritarrak kontzientziatzeko helburua izan duten neurriak izan direla, bide-segurtasuna sendotzeko eta uste du helburu hau neurri handi batean bete dela.

Eguren jaunak esan du ez dagoela neurrien kontra, baizik eta nola eta non hartu direnaren aurka. Bere ustez horrelako neurriak hausnarketa eta kontsentsu bat egin ostean hartu behar dira.

Era berean San Bartolomeko sarreraren berrantolamenduaren alde dagoela esan du baina ez du proiektuaren planteamenduaren berri izan nahi makinak sartzan direnean.

Urriaren 6ko Gobernu Batzordean Iruretagoyena andreak izandako interbentzioa ekarri du gogora, bertan esan zuen hilabeteko epean proiektua idatzita egongo zela.

Azpinarratu du arazoa ez dela zer erabakitzen den baizik eta nola eta non erabakitzen den.

Esan du, azaroaren 11n, esan diotenaren arabera, Mugikortasun Mahaian parte hartuko duten pertsonen zozketa egin zela. Akta bidali zaie. Eta mahaiaren eraketa, zozketa eta abar nork erabaki duen galdetu du, eta ez dela Hondakinen Mahaiarekin jarraitu zen prozedura bera jarraitu.

Prentsa bidez izan dute mahaiaren eraketaren berri.

Alkate jaunak erantzun dio esanez San Bartolomeko berrantolamenduaren proiektua atzeratu egin dela. Mahaiari dagokionez, esan du hondakinen mahaiaren eraketa berarekin osatuko dela.

Adierazi du gaia behin baino gehiagotan atera dela Gobernu Batzordean eta inor ez dela mahaia eratzeko eraren aurka azaldu.

Eguren jaunak esan du egia dela gaia noizbait atera dela baina inoiz ez da mahaiaren eraketa eraz hitz egin. Eta hondakinen mahaiaren eskema bera duela esan duenaren harira, ez da egia merkataritzaren sektorea eta udaltzaingoa sartu delako baina ez gazteak, adinekoak, ezgaitasuna dutenak eta abar.

Alkate jaunak erantzun dio esanez, gainera, gai zehatzenak aztertzeko mahai bat eratzea komeni dela, horretaz hitz egin dutela; eta paraleloki foro bat epe luzerako neurri eta ekimen orokorragoei buruzko erabakiak hartzeko.

Eguren jaunak esan du ez duela oso ondo ulertzen aldi berean foro bat eta mahai bat eratzearen kontua. Bere ustez, Agenda XXIek adibidez egon behar luke.

Ez du bat egiten hondakinen mahaiko eskema bera jarraitu dela esan duenarekin eta adierazi du hondakinen mahaiak kontsulta bidez herritarrek nahi zuten hondakinen bilketa-sistema erabaki zuela baina ez zuela epe luzerako akordio edo erabakirik hartu.

Ez daki zein irizpideren arabera hautatu diren mahaia osatuko duten eragileak.

Hondakinen mahaia eratu behar zenean lan-gidoi bat egin zen eta gai horri buruzko informazioa bazegoen. Alkate jaunak adierazi du, aurreko astelehenean, Gai Arrunten Batzordean, Maiza andreak gaiari buruz galdetu zuela eta akta eta mahaiaren eraketa jasoko zituela erantzun zitzaiola.

Horri buruz dauden agiriak honako hauek dira:

- 1) Merkatarien proposamena.
- 2) Trafiko-mugimenduei buruz udal teknikariek egindako azterketa eta ekarpenak.
- 3) Mugikortasun Plana.

Agiri hauek Mugikortasun Mahaira eramango dira.

Eguren jaunak galdetu du ea logikoa den mahaiaren parte hartzera joatea oraindik ez badute dokumentazio hori.

Sukia andreak esan du ez duela uste aparteko memoriadun pertsona denik baina adierazi du osoko bilkurak grabatu egiten direla eta gogoan du gaiaz galdetu zuen azkeneko txandan erantzun ziotela teknikari batzuek uste zutela egokiagoa zela foro bat sortzea eta ez mahai bat.

Beste behin ere informazioa prentsa bidez iritsi zaio.

Eguren jaunak baieztatu du gobernu taldeak, bere aldetik soilik, mahaiari dagozkion erabakiak hartu dituela. Mahaiaren aztertu edo galdetuko dena jakin nahi du eta uste du bederatzi hilabete eta gero aldeztu erabakita dauden erabakiei buruz (adibidez aparkaleku bat eraikitzea) hitz egingo den mahaia osatuko dela, hori dela eta, ez daki zertara joango diren eta zein ekarpen egin dezaket.

Alkate jaunak gogora ekarri du kanpainan esan zuela helburua ez zela hondakinen bilketa-sistema aldatzea edo aparkaleku bat eraikitzea, baizik eta herritarren beharrak ikertzea eta aztertzea.

Ez dute dagoeneko hartutako dauden erabaki batzuk legitimatu nahi dituen mahai batean parte hartu nahi. Ez dute horretan parte hartuko.

Euskal Herria kalea ireki dezakete, semaforo bat ipini edo aparkaleku bat eraiki, baina ez diete aztertuko diren neurri eta ekintzei buruzko informaziorik eman, eta ez daude horrekin ados.

Alkate jaunak esan du bere asmoa eta nahia dela mahai hori hondakinen mahaia bezain aberasgarria izatea.

Maiza andreak esan du partaidetza prozesuak hiru fase dituela:

- 1) Prozesua nola egingo den zehaztea eta metodologia onartzea.
- 2) Prozesua martxan jartzea onartutako metodologian oinarrituta.
- 3) Herria nola egin nahi den diseinatzea.

Eta pausu horiek guztiak mahaia sortu aurretik burutu behar dira.

Bere iritziz guztientzako herri bat diseinatu behar dugu, ez bakar batzuen interesa, hau da, merkatariena soilik kontuan izanda. Ibilgailua ate ondoan nahi dugu oinezkoengan pentsatu gabe.

.....

Ezenarro jaunak, aurreko osoko bilkuran onartu zen Enirio-Aralarri buruzko LANDARLAN mozioari buruz galdetu du ea adostutako neurri eta proposamenak martxan jarri diren.

Alkate jaunak erantzun dio esanez datorren astean Batzorde Iraunkorraren deialdia egingo dela eta horri buruzko informazioa emango duela.

Eguren jaunak esan du gobernu taldearen funtzionamendu erak ezin duela modu berean jarraitu. Hori dela eta gaiari buruzko hausnarketa eskatu du eta datorren urte berrirako aldaketa egon dadila. Adierazi du legealdi honetan 16 edo 17 hilabete daramatzagula eta gauza aldatzen ez bada beraiek behintzat ez daudela berdin jarraitzeko prest.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.